

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak eta Aezkoako Batzarre Nagusiak hitzarmena sinatu dute Orbaizetako fabrika birgaitzeko

*Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak 209.997 euro emango ditu, aurreikusitako inbertsio osoaren % 24,38*

Martes, 03 de junio de 2014

Nafarroako Gobernuo Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak eta Aezkoako Batzarre Nagusiak lankidetzahitzarmena sinatu dute [Orbaizetako Munizioen Errege Fabrika](#) birgaitzeko obraren proiektua gauzatzeko. Inbertsio guztiak gauzatzeko aurrekontu osoa 861.347,10 eurokoa da, BEZa barne. Nafarroako Gobernuak proiektuaren % 24,38 finantzatuko du, gehienez 209.997,86 euro, honela banatuta: 105.000 euro 2014an, 64.998,98 euro 2015ean eta 39.998,88 euro 2016an.



Kontseilaria Félix Jamar agurtzen, hitzarmena sinatu ondoren

Aezkoako Batzarre Nagusiak, bestalde, inbertsioaren % 2,48, hau da, 21.355,69 euro, eta obraren garapenaren koordinazioa hartuko ditu beregain, eta, hala denean, obrak gauzatzetik sor daitekeen kosturik handiena. Sustapen Ministerioak 629.993,55 euro emango ditu (% 73,14).

Lankidetzahitzarmena gaur goizean sinatu dute Juan Luis Sánchez de Muniáin Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak eta Félix Jamar Jáuregui Aezkoako Batzarre Nagusiko lehendakariak, Carlos Erce Turismoko zuzendari nagusia bertan zegoela.

Inbertsioak 2016ko ekainaren 1a baino lehen amaituta egon beharko dira. Aezkoako Batzarre Nagusiak 2016ko ekainaren 15a baino lehen aurkeztu beharko du inbertsio osoaren justifikazioa.

Orbaizetako Munizioen Errege Fabrika [interes kulturalerako ondasuntzat](#) izendatutakoa da, eta Aezkoa Ibarreko funtsezko baliabidea da, izan ere, duen ondare-interesaz gain, [Iratiko Oihanean](#) eta inguruko eskualdean turismoaren aprobetxamenduan eta garapenean ere eginkizun garrantzitsua du.

### Proiektua

Jarduera-proiektuan arma-fabrika bera eta jauregi zaharra sartzeko dira, besteak beste. Esku-hartze turistikoari dagozkion jarraibideak fabrika

eskuialderako ekimenen gune bihurtzeko asmoarekin gauzatuko dira, iraunkortasunean, errentagarritasun ekonomikoan eta ibarreko bizilagunen babesean oinarrituta.

Bestalde, proposatutako eraikuntza-irteentzako jatorrizko proiektuan erabilitako teknika eta materialak errespetatzen dituzte, eta eraiki diren horma berrietan lehengoa eta oraingoa dena bereizten da. Gainera, jarduera atzerazekin saihestuko dira eta fabrikak "hondakin" itxura izaten jarraituko du, baina azaltzen eta definitzen lagunduko duten elementuak gehituko zaizkio.

Jauregia harrera-zentroa izango da, informazioa eskainiko da eta inguruaren eta fabrikaren interpretazio-zentro gisa balioko du. Erdisotoan komunak egongo dira, beheko solairuan informazio-bulegoa eta taberna, eta goiko solairuetan interpretazio-jarduerak egongo dira eta erabilera anitzeko areto handi bat egongo da. Haritzeko zolaketa eta solairuen egiturak mantendu egongo dira, eta barruan altzairua erabiliko da, fabrikari dagokion bezala.

## **Hitzarmenak**

Azken urteetan hainbat hitzarmen sinatu dira Aezkoako Batzarre Nagusiarekin arkitektura-multzoa birgaitzeko. Hori dela-eta, 2007ko abenduan, Nafarroako Gobernuak 70.000 euroko laguntza ematea erabaki zuen obraren proiektuak idazteko. 2008an idatzi eta entregatu ziren.

Gainera, proiektu horietan agertzen ziren jarduerak kontuan izanda, hasieran, Nafarroako Gobernuak 167.000,00 euroko eta 20.000 euroko diru-laguntzak eman zituen, hurrenez hurren, sastraka kentzeko, garbitzeko eta seinaleak jarrita (hesiak, interpretazio-panelak, zoruak eta hormak egokitzea) barrutiko hondakinak prestatzeko.

2011ko abenduan, Sustapen Ministerioak eta Aezkoako Batzarre Nagusiak proiektuko jardueren finantzazioa arautzeko hitzarmen bat ere sinatu zuten. Proiektuko jarduerak 1.199.987,71 euro ziren eta Sustapen Ministerioak % 75 hartu zuen beregain, hau da, 889.990,00 euro.

Hitzarmena sinatu ondoren, 2012ko urtarrilean, Batzarre Nagusiak jauregian esku-hartze proiektua esleitzeko izapideak hasi zituen eta, aldi berean, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuari obrak batera finantzatzeko beste hitzarmen bat sinatzeko eskatu zion. 2012ko maiatzean, Nafarroako Gobernuak Batzarre Nagusiarentzako hainbat urtetarako diru-laguntza zuzena baimendu zuen aurreikusitako aurrekontuaren gainerako % 25a finantzatzeko, hau da, 299.996,93 euro. Hala ere, baimena ez zen izenpetu, aurrez Sustapen Ministerioarekin adostutako hitzarmenaren klausula bat bete ez zelako. Ondorioz, aurreikusitako diru-laguntza bertan behera utzi zen eta, beraz, Batzarre Nagusiak obrak lizitzatzeko espedientea berriz ere hasi behar izan zuen.

2013an, Aezkoako Batzarren Nagusiak prozesua berriz ere hasi zuen, obraren lizitazio berria arautzen duen baldintzen agiria eta Ministerioarekin izenpetutako hitzarmenaren gehigarria onetsi zituen, eta, 2013ko abenduaren 26an, obrak 861.347,10 euroren truke esleitu zituen.

Izapide horiek egin ondoren, Aezkoako Batzarre Nagusiak berriz ere eskatu zion Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuari 209.997,86 euroko ekarpena egiteko, hau da, obrak esleitu ondoren aurreikusitako inbertsioaren % 24,38. Gainerako zenbatekoak Sustapen Ministerioak (% 73,14) eta Aezkoako Batzarre Nagusiak berak (% 2,48) hartuko dituzte beregain.

## **Historia**

Armak egiteko industria-instalazioa Karlos III.ak aginduta sortu zen 1784an, burdinola zahar bat oinarri hartuta. Fabrikak inguruko burdin-meategiak, egurraren ugaritasuna eta ur-ibilguak aprobetxatzen zituen armadarentzako armak eta munizioak egiteko.

Kasu honetan, muga eta isolatuta zegoenez, armen fabrika batentzat kokapena ezegokia zela ikusi zen, Frantziako Iraultzako gertaeren eta frantsesak penintsulan sartzearen ondorioz. Denbora gutxi iraun zuen, mende oso bat ere ez, eta hainbat gorabehera izan zituen. Dena lapurtu zuten eta suak ere hartu zuen, baina hainbat alditan berpiztu zen, XIX. mendean betirako itxi zen arte (1873). Gerora, interes

kulturaleko ondasuntzat jo da, edonolako birgaikuntza-jarduerak egin aurretik.

Eraikina eta inguruak kanpaina arkeologikoetarako kokaleku bihurtu ziren 1986, 1987, 1988, 1989, 1990 eta 1991 urteetan.